

Gipuzkoako Kantu Txapelketa gaur hasiko da, Zarautzen

Bigarren kanporaketa maiatzaren 13an jokatu da, eta saio nagusia hilaren 27an

Erredakzioa / Donostia

Lau urteko etenaldiaren ostean, Euskal Kantuzaleen Elkartek berriz ekin dio Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketa antolatzeari. Zarautzen eta Lezon jokatu dira kanporaketak, eta finala Hondarribian izango da, maiatzaren 27an. Lehen hiru sailkatuak Euskal Herriko Txapelketako finalean ariko dira Gernikan, ekainaren 17an.

ZARAUZKO Alkartetxeko aretoan jokatu da gaur, arratsaldeko 17:30etan, Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako lehen kanporaketa. Hamabost urtetik gorako kantariak parte har dezakete txapelketan, bakarka edo taldeka, *a capella* zein musika tresnekin.

Antolatzaileek Gipuzkoa osoko musika eskoletara igorri dute deialdia, eta jadanik hamabost kidek eman dute izena. Dena den, izena ema-

teko epea oraindik zabalik da, eta saioa hasi baino ordu-bete lehenago itxiko da.

Kantu tradizionalak eta berriak onartzen dira, eta euskaraz abestea da baldintza bakarra. Epaimahaiak kontuan izango ditu hitzen eta melodien kalitatea —kantariak berak sortutakoak baldin badira—, kantarien ahotsa, interpretazioa, trebetasuna eta kantu zaharrei emandako ikuspegi berritzailea, besteak beste. Epaima-



BOB EDMÉ

Gaëlle Larroude, Amikuzeko kantaria, Gernikako saio nagusirako sailkatu zen Nafarroako Behereko finalerdian.

haikideen artean, Mikel Markez, Amaia Zubiria, Maite Idirin eta Jaione Eskudero izango dira Gipuzkoako saioetan.

Finala grabatu eta diskoa argitaratu da

Gipuzkoako Kantu Txapelketako bigarren kanporaketa maiatzaren 13an jokatu da, Lezon, eta saio nagusia maiatzaren 27an, Hondarribiko kiroldegian. Finaleko emanaldia grabatu eta disko batean argitaratu da. Gipuzkoako lehen hiru sail-

katuek Euskal Herriko Txapelketako finalean parte hartuko dute, ekainaren 17an, Gernikako kiroldegian, Euskal Herriko gainerako probintzietako ordekariekin batera.

Jadanik jokatu dira Lapurdiko, Zuberoako eta Nafarroa Behereko finalerdia. Hala, Lapurdiko Virginie eta Olivia Ipharagerre, Elaudi taldea eta Maialen Erotabehere ariko dira Gernikako finalean, beren probintziako saio nagusian sailkatu ostean. Zuberotarren artean, berriz, Jean Yves

Constantin, Pascale Elixon-doborda eta Ainarak taldea nagusitu ziren. Era berean, Nafarroa Behereko ordezkariak izango dira Oilandoi taldea, Gaëlle Larroude eta Thierry Biskari.

Arabako saio nagusia Laudion jokatu da, maiatzaren 28an. Bizkaian, aldiz, lau kanporaketa izango dira bihar, maiatzaren 13an, maiatzaren 21ean eta 27an, Galdakaon, Bermeon, Basaurin eta Santutxun, hurrenez hurren, eta finala Getxon antolatu dute, ekainaren 3an.



Herri Bat Egile Bat
Errusiako Federazioa

ALEKSANDR SERGUEEVICH PUSHKIN

Maiatzak 9, asteartea, 19:30 (Areto Nagusia)

"Pushkin eta gaur egungo poesia errusiarra"
Hizlaria: Felipe Juaristi

Maiatzak 10, asteazkena, 19:30 (Areto Nagusia)

"Pushkin eta Espainia"
Hizlaria: Javier Agirre

"Pushkinen prosa"
Hizlaria: Ricardo San Vicente

Maiatzak 11, osteguna, 19:30 (Areto Nagusia)

"Pushkinen garaikideak"
Hizlaria: José Morales


Koordinaketa : Felipe Juaristi



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Euskara, Juventud y Deportes

HONDARRIBIA

Azoka · Feria · Marché



MAIATZAK
7
IGANDEA

AZOKAK

ARTE
&
BROCANTE
ETA BILDUMA

Hondarribiko
Udala

Kultura
Saila



Kantarien akuilua

Euskal Kantu Txapelketak kantari eta talde ugari eza-gutarazi ditu: Erramun Martikorena, Mikel Urdangarin, Aire ahizpak, Jojo eta Ramuntxo, Etzakit, Laiotz eta beste hainbat. Izan ere, euskal kantugintza sostengatzeko garrantzitsua da txapelketa. «Lehiaketa bat izateak, agertoki eta publiko bat izateak kantuan seriotasunez segitzeko babesa eta akuilua ematen die hortik zehar ezkutuan diren kantari gazteei; kantari on asko daude hortik deskubritzeke», Amaia Zubiria epaimahaiakidearen hitzetan. Amaia Zubiria bera Euskal Kantu Txapelketan «hezi» zen, Zubiriaren beraren esanetan.

Ipar Euskal Herrian eta Bizkaian txapelketa honek oihartzuna badauka, eta Euskal Kantuzaleen Elkarteko kideen helburua da Gipuzkoan harrera bera izatea. «Beharrezko bultzada ematen bazaio, etenik gabekoa, txapelketa serioa bihur daiteke urte gutxian», Amaia Zubiriak esan duenez.